

ANTON MARI ALDEKOA -OTALORA

ETA XABIER AMURIZAGAZ

San


Euskal Herrian tradiziño handikoa da Santa Agedari eskean eta kopla-kantetan urtetea. Bizkaian be bada holakorik, ezaugarri berezi batzuekax ganera. Horregatik, kopla-kantetan ez, baina Santa Agedari buruzko kontuak berbagai izan dodaz artikulu hau egiteko Xabier Amuriza eta Anton Mari Aldekoa-Otaloragaz. Bata Bizkaiko koplagintza aztertu dabelako, bestea Santa Ageda koplak batzen ibilitakoa dalako.>>>>>>>

Testua

Izaskun Ellakuriaga


Argazkiak

Karlos Corbella



ta

AGEDAZ BERBETAN





24 BERTSOLARI



Hari beretik, nekazaritza munduko esakera bi argigarri dira: «Kandelarixo hotz, negua juen da motz» bata, eta bestea «Kandelarixo bero, negua dator gero». Horregatik baserri batzuetan «Kandelario egunean eguraldi ona baino otsoa artaldean ikustea» gurago ebela aipatzen eben.

Santa Ageda Eskea nozkoa dan jakin guran galdera egin eta Anton Mari, Kandelario, San Blas, Santa Ageda, Eguen Zuri eta Iñauteriak zaku berean sartuta, esplikazioak emoten hasi da: «Kristau aurreko jainkosa bat baegoan, Agata izenekoa, Sizilian. Badi-rudi, ugaritasunaren jainkosa zala, bular-tsua. Eta, Kandelario eta iñauteri fetxak be garrantzitsuak dira eta ugaritasunarekin zerikusi handikoak».

Hari beretik, nekazaritza munduko esakera bi argigarri dira: «Kandelarixo hotz, negua juen da motz» bata, eta bestea «Kandelarixo bero, negua dator gero». Horregatik baserri batzuetan «Kandelario egunean eguraldi ona baino otsoa artaldean ikustea» gurago ebela aipatzen eben.

Ugaritasunarekin iñauteri edo aratostee-ek eurak be zerikusia dabela diño Anton Marik: «Iñaute aroari emoten jako amaiera iñauteri edo aratostee kaz. Horren ostean arbolak lorara etorriko dira. Horregatik, aro horren azkenean jai handiak egiten dira fruitu horrek emankorrak izan daitezkan. Beraz, hor badago ospakizun eta eskarietarako motiborik».

Askorentzako harrigarria izan liteke ugaritasuna eta iñauterien antzeko neurri asko bako ospakizunak santu bategaz lotzea. Baina horretarako be esplikazioa egon daiteke. «Elizak lehendik zegoan ohitura bat erreziklatu egin ebala dirudi. Herrian tradiziño handiko ohitura bat jaso eta santa baten izenean egin eta bideratu ebala esan geinke. Dana dala, hau nire susmoa da eta datu zehatzik ez dago», Xabier Amurizak argitzen dauanez.

Koru tradiziñoa

Bizkaian, Santa Ageda eskean egitea koru tradiziñoagaz lotu liteke. Bizkaian kantetan diran Santa Ageda koplak, koplak ikasiak dira. Gutxi batzuk bat-bateko koplak kantatu arren, Bizkaian bi-hiru ahotsetako koruak izan dira nagusi. Koru tradiziño hori karlisten garaikoa zala uste dau Anton Marik:

«Gutxi batzuk bat-bateko koplak kantatu arren, Bizkaian bi-hiru ahotsetako koruak dira nagusi. Koru tradiziño hori karlisten garaikoa zala uste dau Anton Marik: «Karlistak zein baino zein euskaldunago eta tradiziñoa goraipatzeko beharra zegoan. Beraz, koruen tradiziñoa be hortxe berpiztuko zan»».

«Karlistak zein baino zein euskaldunago eta tradiziñoa goraipatzeko beharra zegoan. Beraz, koruen tradiziñoa be hortxe berpiztuko zan».

Beraz, Bizkaia aldean Santa Agedaren bizitza kantetan da eskean etxerik etxe urteteen. Halan da be, «Gaur Santa Ageda gaba da ta, hemen gatoz kantuen» lehenengo koplak kantatuta etxeko ugazaba, alabari edo kantatu izan jako. Horren bueltan, Joxe Alberdirena izan litekeen koplak batean "Matxin" izeneko bat agertzen dala eta hori Iurretan bizi izan zala jarri dau adibidea Anton Marik: «Matxinsaltuek poltsie deko arina / Matxin Santuenekoak egina». Xabier Amurizak, bestetik, Berrizen santaren bizitzari buruzko bertso-paperen batzuk zelanbait ailegatu eta urteetan horrek kantatu dirala gaineratu dau, Bizkaiko Santa Ageda koplak tradizioa testu jakinean oinarria daukala nabarmenduz.

Horregatik, ez dira Santa Agedari buruzko koplak asko ezagutzen Bizkaian. «40 koplak gora ez dira egongo Bizkaian. Horrek Santa Agedanak. Ostera, erronomia koplak ehundaka egongo dira. Horretarako tradiziño handia egon dalako», Xabier Amurizaren ustez.

Horrez gain, Santa Ageda koplak kante-tako doinu askorik be ez dago. Bi aipatu deuskuz Anton Marik eta bizkaitarrak eta karlisten arteko banaketa aipatu dau.

*«Santa Ageda, Ageda, Ageda,
bihar da Santa Ageda,
bihar da Santa Ageda eta
gaur haren bezpera gauba»*

Aipatutako koplari dagokion doinua karlistek euren artean hartu ebenean, bizkaitarrak beste hau atara eben Anton Mariren esanetan.

*«Aintzalduta daigun Agate Deuna
bihar da ba Deun Agate»*

Gizonezkoak kantuan

Orain ezagun da eta ez da arraroa egiten andrazkoak Santa Ageda eskean urtetea. Baina, lehen gizonezkoek bakarrik urteten eben kantuan. Dana dala Anton Marik aipatu dabenez, Santa Agedaren inguruan jaso dabezan koplari gehienak andrazkoek kantatuta izan da. «Baina eurak be garbi esaten eben eskola-mutilek kantetan ebezela», argitu dau.



Eguen Zuri koplak be sasoi beretsuan kantetan dira. Askotan doinu bera erabilten da. Dana dala, ezberdintasunik bada bien artean.

Eguen Zuri koplak «eskola-mutilek» kantetan zituezan. Eta eskeko erronda egunez egiten zan. Santa Ageda, barriz, nagusia zan eta gabeko erronda zan. Santa Ageda kantetan etxeko beharrak amaitutakoan, iluntze aldera, jendea etxeetan batuta egoanean urtetan zan. Eta Santa Ageda bezperako gabak etxeetako ateak joteko bai-


mena emoten eban.

Jenero eske

Eskeko koplak dira Santa Agedakoak. Gaur egun, diru eske urten arren, lehen batez be jeneroa eskatu eta jeneroa emoten zan: «urdaiazpaxe ona da baina/ hiru lukainkaz hobia da» edo «topaizok oilo pintenai abixe».

«Intxaurrak, urrak, gabon ostean txerria be egoten zan. Etxe askotan Santa Ageda kantetan joaten zirenendako okasiorako gordetako jeneroa izaten eben. Ohitura iza-





ten zan eta gauza estimaua. Arrautzak emoten zituezan etxean asko zan. Sasoian jenero handia zan arrautza», kontetan dau Xabier Amurizak.

Eguen Zuriko kopla bat nabarmendu gura izan dau horren bueltan Anton Marik.

*«Zuri-zuritxuak maixuarentzat
beste enparauak geuretzat»*

Antza danez, jeneroa eskatzen eben eskola-mutilek. Eta inoiz dirua emonez gero, maixuarentzat gorde behar izaten zan.

Ettxerik etxe eskean joateak be askotan kopla kopurua murrizten eban. Horregatik, emon arte etxekoen zurikerian ibili beharra egoten zan eta limosna emondakoan kantuari amaiera emoten jakon. Aterik zabal-tzen ez bazan apur bat gehiago ekin edo bestela honen antzeko kopla kantetan zan:

*«Andre mondrongo mondrongo
hik ezton asko emongo
hik emondako limosniagaz
etzunau asko edango»*

Koplen estetika

Santa Ageda eskeko oinarri beti kopla izan da. Anton Marik aipatu dauenez, «literatura modernoan Arestik esaterako iturri zaharretik edan eban eta "Egun da Santimamiñe" koplak Ageda bera be aipatzen dau»

Xabier Amurizak koplek estetika propioa daukatela diño: neurriz, luzeraz eta elementuen erabileran. Koplaritzan betelanik ez dagoala diño. «Horretarako lekuri bez. Lotura gramatikalik egiteko lekuri ezak, esaldiak harrikada solteak lez botatea egiten dau eta hortik sortzen da estetika diferentea», azaltzen dau Xabierrek. Bertso-gintza, aldiz, diskurtsiboa dala uste dau. Dana dala, betelanik edota lotura gramatikalik egiteko lekuri egon ez arren, lotura badagoela uste dau Xabierrek. «Lotura hori koplariak eta entzuleak» ezagutzen dabela uste dau. Horregatik, koplariak bertsolari-tzari zer aportau asko daukala uste dau. •

